

Zelten erlijioa

Desde la reducida geografía actual de los pueblos celtas (en el Reino Unido, Irlanda o Bretaña) no es fácil adivinar la amplitud que alcanzó su presencia en el Continente, en el primer milenio antes de Cristo. Su cultura y expresión religiosa alcanzaron desde Anatolia, los Balcanes y el Danubio hasta Galicia, y desde Escocia al Mediterráneo. Vestigios arqueológicos diversos testimonian también la existencia de comunidades celtas en Euskal Herria, y hay signos de su religiosidad.

Asia Txikitik Atlantikoraino barreiatu ziren Europan zehar herri zeltak, batzuetan lurraldea erabat hartuz, eta sarritan tokian tokiko beste herriekin lurralde berean biziz. Herri hauen berri ematean, idazle greko-erromatarrek zelten bi ezaugarri azpimarratu zituzten: oso gerlari onak zirela, eta zinez erlijiosoak.

Herriak eta kulturak

Indoeuroparrak ziren herri zeltak, eta K. a. lehen mila-urtekoan heldu ziren Penintsula Iberiarrera. Gizarte ongi antolatuak zituzten. Zesar-ek Galia (orduko Frantzia) konkistatu zuenean (K. a. 58-52), hiru herri-lurralde bereizi zituen haien artean: Zeltika deitu zuena eta Belgika, biak ere zeltak zirenak, eta hegoaldean, Garonatik Pirinioetara, Akitania, bestelako ohiturak eta hizkuntza omen zituena.

Herri zeltek Penintsula Iberiarrean ere beren barruti zabala hartu zuten, Ebro Goienetik hegoalde eta Atlantikorako lurraldeetan, Mediterranioko kostaldea lehenagoko herri iberiarren eskuetan geratzen zen bitartean. Konkistarako, erromatarrek gogor borrokatu behar izan zuten herri zeltiberiar deitu izan direnekin (gerrateak K. a. II. mendean: Numancia, -133).

Herri zeltek ez zuten lortu batasun politiko iraunkorrik, ez Galian eta ez Hispanian, baina kanpoko erasoek halakorik eskatu zutenean, saiatu ziren indarrak bildu eta unean uneko batasun politiko eta armatuarekin aurre egiten, erromatarrei adibidez.

Esan dugun bezala, nabariki erlijiosoak ziren herri haiek, eta beren sinesgaiak izateaz gainera herri zelta batzuetan antolakuntza sozial oso eratua eman zioten erlijio-bizitzari. Bereziki agerikoa izan zen hori Britania eta Galiako zelten artean, ez hainbeste gainerako herrialdeetan.

Druida deituak ziren zelten arteko apaizak, baina berezko apaiz-zereginen ondoan, gizarte-ko jakitunak ere baziren: berak ziren, hain zuzen, herriko jakite ezkutuak gordetzen zituztenak, irakasle eta epaile, igarle eta sendagile zirenak; eginkizun politikorik ere izan zezaketen apaizok, Irlandan, adibidez, herri biltzarretako gidari izan zitezkeen.

Batasun politikorik gabeko herri zelten artean, erlijio-antolakuntzak eman zien haiei bestelako batasun sozio-kulturala. Dena den, jakite eta ardura erlijiosoa zen druiden berriazko betebeharra.

Baina hori dena ezagutzeko oztopo larri batekin egiten dugu topo: zeltek ez zuten erabili idazkuntza beren ohitura eta erlijio-gaiak gorde eta zabaltzeko. Beraz, zeharbidez, jakin ahal izan dugu zerbait zelten erlijioari buruz, arkeologiaz baliatuta edo kanpoko idazleek idatzitakoetatik.

Zeltak Euskal Herrian

Herri zeltek beren lekua izan zuten Euskal Herrian eta bertako inguruetan, K. a. azken mendeetatik aurrera batik bat. Presentzia hori ez zen izan, ordea, bereziki konkista armatuen emaitza,



inmigrazioen eta kultur eraginaren lorpena baizik. Horrek sortutako egoera berria Akitanian eta Euskal Hegoaldeko Mediterranioko isurialdean aurki daiteke biziago.

Euskal Iparraldean Galiatik bezala Hegoaldean Ebro-aldetik sartu zen lehenik bizilagun eta kultura zelten hori. Arabako Errioxan, Ebrotik iparrera doazen bailaretan daude zeltek utzitako aztarnak, La Hoya edo Gasteizko Atxa-ra eta Dulantziraino.

Eta euskal mendialdeetako hainbat tokitan ere eraikin erraldoiak jaso edo indarberritu zituzten zeltiberiarrek: adibidez, Intxur Gipuzkoako Albizturren edo Marueleza Bizkaiko Nabarñizen. Euskal herriko lekuizenetan ere ispilatu da, dirudienez, hizkuntza zeltiberiarren lekukotasuna: esate baterako, "Zegama" edo "Beizama" izenek traza zelta gutzia dute.

Tenplurik izan gabe (edo behintzat ez da halakorik aurkitu Euskal Herrian), zeltek lehenik izadian bertan zituzten beren erlijio-guneak: baso, iturri eta erreka, mendí, zuhaitz eta abarretan. Nonahi aurki zitzaizkiren maiteak zituzten leku sakratuak. Bestalde, sinestun zeltek bazituzten beren santutegiak, batzuetan garrantzi handikoak, bestetan apalagoak. Beharbada, Arabako Markinez-en *Epona* jainkosa zeltak zuen horietako bat, eta Bizkaiko Arratzun dago santutegizat hartu den Gastiburuko eraikina.

Euskal Herriko bizilagun zelten erlijio-eraketa ez zen izan, noski, Galiako zeltek zuten antolakuntzaren tamainakoa, nahiz eta inoiz edo beste apaiz-zereginak dituzten pertsonaiak ere ageri diren Hispaniako epigrafian.

Erlijiotasun zeltaren aztarna esanahitsuenak hilerrietan aurki ditzakegu, historialariek "nekropoli" deituetan, esan nahi dut. Paleolito edo Neolitoan bezala, heriotzaren inguruko ohiturak izan dira zelten Burdin Aro horretako erlijiotasunaren lekukorik argienak. Hilerrietara berrikunt-

za anitz ekarri zuten zeltek, batez ere hildakoen gorpuak errausteko ohitura indartu eta hedatuz; ondorioz, hilerri modu berriak sortu zituzten.

Euskal Herriko hilerri zelta hauek Araba eta Nafarroako hegoaldean topatu dira sarriago. "Errauts-kutxatilen sailak" dira ezagunenak eta berritasun nabariena dutenak (Valtierra, Arguedas, Mendabia, Cortes); horiekin bateratsu, harriz egindako hilobi batuen zimitorioak daude (Guardiako Piñuelas-en eta La Hoya-rekin harremanean dagoen La Costera-n, biak ere Araban), eta, hirugarren, aspaldidanik zetozen harrespilak, modu batera edo bestera artean baliozkoak zirenak (Leitzaran bailaratik ekialderakoak: "Mairubaratzak"). Nekropolien hau kostalderago ere topatu da: Bizkaiko bihotzean hor daukagu Berreagako hilerria, K. o. I-III. mendeetakoa (Txorierrri).

Ziurtzat ematen da gaur kultura zelta horrek "heriotza-ondokoen" sinesmena bizirik zuela bere baitan, nahiz eta zailagoa den jakitea nolakoak ziren sinesgai haiek. Oro har, Europako herri zelten jaikoak berak zituzten Euskal Herrian ere, hala uste da. Bazuten beren "hiritasuna": *Taranis*, *Teutates*, *Esus*. Sarritan jainko zelten berri erromatarrengandik jaso dugu, bi herrietako jainkoen arteko kidesetasunak ematen zizkigutela: hala, *Taranis* zelta Jupiter zen, *Lugus* Merkurio, *Esus* Dispater, *Teutates* Martitz edo *Epona* Juno.

Badakigu hiletetan beren erritoak zituztela, mota ezberdinetakoa sakrifizioak egiten zituztela, berorietan ospakizun arautuak zainduz. Oro har, badirudi jakinduria ezagun eta ezkutuak zituztela mundua ulertzeko, gizartea eratzeko eta herriari bere barne-elkartasuna segurtatzeko. Eta hori dena ikasi egiten zela, baita horretarako Galiatik Britaniara joanda ere.

Joseba Intxausti